

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

2024-2025 ikasturtean ikasi eta prestatzera joateko garraiorako diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak

Udal osoko bilkurak 2025eko martxoaren 20an egindako saioan honako hau erabaki zuen, beste batzuen artean:

— Honako arlo hauetan dirulaguntzak emateko deialdia eta dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onartzea: 2024-2025 ikasturtean ikasi eta prestatzera joateko garraiorako laguntzak.

— Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2025eko gastuen aurrekontuko 326.481.020 eta 241.480.000 partiden kargura ordaintzea.

— Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazio Auzitegiko Epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berriazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2025eko martxoaren 31n

Alkate-udalburua
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

2024-2025 IKASTURTEAN IKASI ETA PRESTATZERA JOATEKO GARRAIORAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

1. Helburua eta xedea

Deialdi honen xedea Zuiako Udalak 2025ean ikasketetarako emango dituen diru-laguntzak arautzea da. Onuradunak 2024/2025 ikasturtean udalerritik kanpo unibertsitateaz kanpoko ikasketak arautuan, batxilergoan edo lanbide heziketan ikasten ari diren ikasleak izango dira. Ezinbestekoa da ikasketak Zuiako udalerrian egitea ezinezkoa izatea.

Era berean, Zuiako Udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroetara joateko udalerrian errolatutako pertsonen eta langabetuak zuzenean lan-munduratzera zuzendutako ikastaroetara joateko egiten duten garraioa barne hartuko da.

2. Aurrekontu-kreditua

2025eko aurrekontuan 17.500,00 euro ezarri dira 326.481.020 gastu partidan 2024/2025 ikasturtean ikasketetarako laguntzak emateko. Halaber, gastuen aurrekontuetako 241.480.000 partida, 2.000,00 eurokoa, ere badago langabeziaren aurka egiteko laguntzetarako.

3. Onuradunak

Ikasturtea hasteko egunean Zuiako udalerrian erroldatuta, gutxienez, urtebete daramaten (eta ikastaroa bukatzen den egunera arte, hori barne, erroldatuta jarraitzen duten) unibertsitateaz kanpoko, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleek eta ikasturtea hasteko egunean Zuiako udalerrian erroldatuta, gutxienez, urtebete daramaten (eta ikastaroa bukatzen den egunera arte, hori barne, erroldatuta jarraitzen duten) eta Zuiako Udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroak egiten dituzten pertsonak parte hartu ahal izango dute diru-laguntza deialdi honetan, bai eta lan-munduratzeara xede argia izanik erakunde publikoek sustatzen dituzten ikastaroak, unibertsitate-ikasketak izan ezik, egiten dituzten pertsona langabetuek ere.

Unibertsitate-ikasketak direla-eta, laguntza-deialdi honek ondorengoak barne hartzen ditu: unibertsitate-graduako ikasketa ofizialak, karrera-amaierako proiektuak barne, eta musika eta dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinu eta kirol arloko ikasketen goi-mailako gradua. Ondorengo ikasketak kanpo gelditzen dira: edonolako masterrak, doktoregoak, arlo zehatzetako adituak, beste ikasketa batzuetara sartzeko prestakuntza-ikastaroak edo, oposaketak eta antzekoak, ikerlanak, gradu ondokoak eta espezializazioak eta urrutiko ikasketak bezalako alderdiak.

Genero-indarkeriaren biktimak salbuetsita egongo dira erroldatuta edo ikastaroak dirauen bitartean erroldatuta egotearen betebeharrak. Beren eskaerak lehentasuna izango dute, eta ez da inoiz laguntza hainbanatuko. Horretarako, egoera hori egiaztatu beharko da kondena-epai bidez, biktima babesteko aginduz eta, salbuespen gisa, eskatzailea genero-indarkeriaren biktima delako susmoak daudela dioen fiskaltzaren txostenaren bitartez, babes-agindua ematen den bitartean.

4. Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskabidea Zuiako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, salbuespen gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bitartekoren bidez, honako dokumentazio honekin batera:

- Pertsonaren NANA; adingabea bada, legezko ordezkariarena.
- Diru-laguntza zein banku-kontutan ordainduko den, diru-laguntza jasoz gero.
- Batxilergoko edo LHko ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen ziurtagiria eta ikasketa-espediente pertsonala; matrikulatutako ikasgaien ehuneko 30 gaingitu beharko da.
- Unibertsitate-ikasketen kasuan, dagokion ikasturteko nota-agiria. Matrikula gutxienez 40 kreditukoa izango da eta gutxienez ehuneko 30 gaingitu beharko da.
- Ikastaroari probetxu atera izanaren ziurtagiria, pertsona langabetuen kasuan.

5. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek hauexek egin beharko dituzte:

- Udalarri helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk lortu izana jakinaraztea, beste edozein administrazio, erakunde edo entitate publikotatik helburu bererako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk eskuratu diren ala ez dioen zinpeko deklarazio baten bitartez. Beste diru-laguntzaren bat eskuratu bada, lortutako zenbatekoa eta administrazio emaila adierazi eta datu horien egiazkotasuna ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.
- Onuraduna kide den familia-unitatea Zuiako Udalarekin, ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zerga-betebeharretan egunean egotea.

6. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabide hauek aurkezteko epea 2025eko irailaren azken egun baliodunean amaituko da, udalak sustatu edo diruz lagundutako ikastaroen kasuan izan ezik, ikastaroa amaitu arte luzatuko baita horien epea, 2025eko abenduaren 15eko mugarekin. Azken hori jaieguna bada, hurrengo laneguna hartuko da erreferentziazat.

7. Balorazio-irizpideak

Diru-laguntzak borondatezkoak dira eta udalak ez dauka zertan diru-laguntzarik eman.

8. Eskaerak ebazteko organo eskuduna

Alkate-udalburuak emango du ebazpena, informazio-batzordeak dagokion txostena egin ondoren.

9. Laguntzaren zenbatekoa

Onuradunentzako laguntzen gehieneko zenbatekoa kopurua finkoa izango da eta ikasleek bizileku duten herriaren eta dagokien ikastetxea dagoenaren arteko distantziaren arabera ezarriko da.

- 40 km arteko distantzia: 150,00 euro.
- 40 eta 80 km bitarteko distantzia: 175,00 euro.
- 80 km-tik gorako distantzia: 200,00 euro.

Distantziak ezartzeko <http://maps.google.es>, web tresna erabiliko da, eta ibilbiderik motzena izango da aintzat.

Pertsona langabetuentzako laguntzen kasuan, gehieneko muga hori 150,00 eurokoa izango da eta egindako ikastaroaren edo ikastaroen iraupenaren arabera emango dira, gutxienekoa 25 ordukoa izanik, ondorengo taularen arabera:

IKASTAROAREN IRAUPENA	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA
0 eta 24 ordu bitartean	0,00 euro
25 eta 50 ordu bitartean	70,00 euro
51 eta 75 ordu bitartean	75,00 euro
76 eta 100 ordu bitartean	100,00 euro
100 ordutik gora	150,00 euro

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezin da zerbitzuaren kostua baino handiagoa izan.

Aurrekontuan bideragarri dagoen zenbatekoa kopuru horiek finantzatzeko bestekoa izan ezean, saldo horren mugaraino hainbanatuko dira laguntzak.

10. Justifikatzea eta ordaintzea

Eskaera eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da diru-laguntza, eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan.

11. Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

Oinarri hauetan jasotzen ez den orotarako, Zuiako Udalaren laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

Garraio, ikasketa eta prestakuntzarako subentzioa - Diru laguntza eskabidea
Subvención de Transporte y Ayuda al Estudio y Formación - Solicitud de subvención

Izen-deiturak/ Nombre y apellidos		NAN-AIZ / DNI-NIE	
Helbidea / Domicilio		Herria / Población	PK / CP
E-mail	Telefonoa	Zuiaen erroldatua / Empadronamiento en Zuia ☐ Bai/ Sí ☐ Ez / No	
Banketxea / Banco	Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente		
Eskatu edo jaso al duzu xede berberarako bestelako laguntzarik? (jaso badira, zenbatekoa azaldu): ¿Has solicitado o recibido otras ayudas para el mismo fin? (si se han recibido, especificar importe): ☐ Bai, zehaztu zenbatekoa / Si, especificar importe ☐ Ez dut jaso edo eskatu/No he recibido ni solicitado ninguna			
Administrazio edo enpresa / Administración o empresa		Zenbatekoa / Importe	
Baimena ematen diot espresuki Zuiako Udalari sektore publikoko edozein entitatetik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan izenburuan agertzen den diru laguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla. ☐ Bai ☐ Ez*		Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zuia para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de subvención indicada en el título de este impreso. ☐ Sí ☐ No*	
*Ezezkoan, aipatutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.		*En caso negativo se deberá aportar tal documentación.	
Diru-laguntzei buruzko azaroaren 2003 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluko baldintzak betetzen ditudala adierazten dut. ☐		Declaro que cumplo los requisitos del art.13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre de 2003 ☐	
Nire erantzukizunpean adierazten dut goian azaldutako datuak egiazkoa direla. ☐		Declaro bajo mi responsabilidad que los datos indicados arriba son ciertos ☐	
Aurkezten den dokumentazioa - Eskatzailearen NANA edo, adingabea bada, haren legezko ordezkariarena, ☐ - Matrikularen justifikazioa. ☐ - Notak gainditu izanaren justifikazioa. ☐ - Langabeen kasuan, ikastaroaren aprobetxamendu-ziurtagiria. ☐		Documentación que se presenta - Fotocopia del DNI de la persona solicitante o, si es menor, su representante legal. ☐ - Justificación de matricula. ☐ - Justificación superación de notas. ☐ - En el caso de las <i>personas desempleadas</i> , certificado de aprovechamiento del curso. ☐	

Sinadura / Firma:

Murgia, 2025ko _____ aren (e)an

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA

945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
azuia.general@ayto.araba.eus

AYUNTAMIENTO DE ZUIA
MURGIA (ALAVA)ZUIAKO UDALA
MURGIA (ARABA)

Datu babesari buruzko informazioa

Información adicional protección de datos

Tratamenduaren arduraduna

Responsable del tratamiento

Identitatea: Zuiako Udala – IFZ P0107200H
Helbidea: Udal plaza, 1 – 01130 Murgia (Araba)
Telefonoa: 945 430 005
E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus
Datuen Babesaren Ordezkarria:
azuia.dbo@ayto.araba.eus

Identidad: Ayuntamiento de Zuiá – NIF P0107200H
Dirección: Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava)
Teléfono: 945 430 005
E-mail: zuiakoudala@ayto.araba.eus
Delegado/a Protección de Datos:
azuia.dbo@ayto.araba.eus

Tratamenduaren xedea

Finalidad del tratamiento

Helburua: Eskatutako diru-laguntzei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa.
Gordetzeko epeak: Subentzioen espedienteak
 Diru-laguntzaren deialdiko espedientearen kontserbazio iraunkorra
 Urte 1 ukatutako banakako espedientetarako eta 8 urte diru-laguntza onartutako espedientetarako.

Finalidad: Gestión de la información personal relativa a la concesión de subvenciones solicitadas.
Plazos de conservación: Expedientes de subvenciones
 Conservación permanente del expediente de convocatoria de lasubvención.
 1 año para expedientes individuales denegados y 8 años para expedientes concedidos.

Legitimazioa

Legitimación

Botere publikoaren egikaritza DBEOren 6.1.e) artikulua
 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra
 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean Erregelamendua onartzen duena

Ejercicio de la potestad pública: art. 6.1.e) RGPD
 Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones
 Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

Hartzaileak

Personas destinatarias

Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak.

Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.

Eskubideak

Derechos

Interesdunek honako eskubide hauek dituzte:

- Zuiako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzenari den ala ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea.
- Haiei datu pertsonaletara sarbide izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatze eskubidea, datuak jaso ziren beharizaneetarako jada beharrezkoak ez direnean.

Egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko:

- Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Zuiako Udalak datuak tratatzeaz utziko dio, salbu eta arrazoi legítimo laria baldin badeude edo erreklamazio posibleen defentsa egikaritza badago. Banakako erabaki automatizatuertarako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake.

Eskubide horiek Zuiako Udalaren aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Udal plaza, 1- 01130 Murgia (Araba).

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz.

Las personas afectadas tienen derecho a:

- Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Zuiá está tratando sus datos personales.
- Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no seannecesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados.

Solicitar en determinadas circunstancias:

- La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones.
- La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Zuiá dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas.

Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Zuiá – C/ Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava)

Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida o atendido, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: C/ Beato Tomásde Zumárraga, 71 – 3ª planta - 01008 Vitoria-Gasteiz.

Udal plaza, 1
Murgia - ZUIA
01130 ARABA

945 430 005
<http://www.zuia.eus/>
azuia.general@ayto.araba.eus

